

## BESTELAKO XEDAPENAK

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

## 3592

*149/2012 DEKRETUA, uztailaren 24koa, Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetako (Berritzeguneak) lanpostuen zerrenda onartzeko Dekretua bigarren aldiz aldatzeko dena.*

Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legeak, II. Tituluaren –irakaskuntzako funtzio publikoaren egitura eta antolaketa– I. kapituluaren lanpostuen zerrendak arautzen ditu.

Lege horren 5. artikulua ezartzen ditu aipatutako lanpostu-zerrendak zer jaso behar duten gutxienez: lanpostuaren izena, lanpostua atxikita duen ikastetxea, ikuskaritza teknikoko zerbitzua edo ikerketa eta irakaskuntzari laguntzeko zerbitzua, eta, hala balegokio, hezkuntza-administrazioaren lurralde-esparrua; lanpostua betetzeko beharrezko diren baldintzak, eta, horien artean, nahitaez, izendatutako hizkuntza-eskakizuna, eta, hala badagokio, derrigortasun-data; lanpostu bakoitzari zein talde, kidego edo maila edo lan-arloko kategoria dagokion; eta, azkenik, funtzionarioentzatzat gordetako lanpostuak izanez gero, lanpostuari dagokion berariazko osagarria eta lanpostua betetzeko bidea.

Lege horren beraren 4. artikulua I) idatzi-zatiak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari esleitzen dio hezkuntzako lanpostu-zerrendak proposatzeko eskumena, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 5. artikulua h) idatzi-zatiarekin bat etorriz. 6/1989 Legearen 5. artikulua h) idatzi-zatiak Eusko Jaurlaritzari ematen dio lanpostu-zerrendak onartzeko eskumena.

Beharrezkoa da, G01 berritzeguneari dagokionean, Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetako (Berritzeguneak) lanpostu-zerrenda aldatzea, curriculum alor ezberdinen arteko oreka lortzeko. Lanpostu-zerrenda hori otsailaren 17ko 41/2009 Dekretuaren bidez onartu zen. Bigarren hezkuntzan, soziolinguistika-arloko hiru aholkulari-lanpostu daude eta zientzia- eta teknologia-arloko aholkulari-lanpostu bakarra. Egoera hori aldatu egin behar da eskualdeko zentroen beharrei bi eskumen-arlo horietan erantzun egokia eman ahal izateko. Gainera, berritzegune hori desoreka duen berritzegune bakarra da.

Horren ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren proposamenez, Euskadiko Eskola Kontseiluari entzunda, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko uztailaren 24an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetako (Berritzeguneak) lanpostuen zerrenda onartzen duen otsailaren 17ko 41/2009 Dekretua aldatzea, Donostiako G01 Berritzeguneari dagokionez. Aldaketaren ondorioz, soziolinguistika-arloko aholkulari-lanpostu bat kentzen da.

Bigarren artikulua.– Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetako (Berritzeguneak) lanpostuen zerrenda onartzen duen otsailaren 17ko 41/2009 Dekretua aldatzea,

2012ko abuztuaren 3a, ostirala

Donostiako G01 Berritzeguneari dagokionez. Aldaketaren ondorioz, zientzia- eta teknologia-arloko aholkurari-lanpostu bat sortzen da..

Hirugarren artikulua.– Donostiako G01 Berritzeguneko lanpostu-zerrenda dekretu honen eranskinean jasota bezala geratzen da, eta 2012ko irailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko uztailaren 24an.

Lehendakaria,  
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,  
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

2012ko abuztuaren 3a, ostirala

## ERANSKINA, UZTAILAREN 24KO 149/2012 DEKRETUARENA

BERRITZEGUNEA: G01

EGOITZA: DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Lanpostua	Hizkuntza- eskakizuna. Derrigortasun- data	Titulazioa	Esperientzia	Taldea
Zuzendaritza	2.HE. DD. igarota	Goi-mailako titulazioa	3 urte, zuzendaritza- lanetan edo antzekoetan	A/B
Haur- eta Lehen hezkuntzako aholkularitza	2.HE. DD. igarota	Haur hezkuntzan gaitasuna	3 urte, Haur- eta Lehen hezkuntzan edo Haur- eta Lehen hezkuntzako aholkularitzan	B
Haur- eta Lehen hezkuntzako aholkularitza	2.HE. DD. igarota	Haur hezkuntzan gaitasuna	3 urte, Haur- eta Lehen hezkuntzan edo Haur- eta Lehen hezkuntzako aholkularitzan	B
Lehen hezkuntzako aholkularitza	2.HE. DD. igarota		3 urte, Lehen hezkuntzan edo Lehen hezkuntzako aholkularitzan	B
Lehen hezkuntzako aholkularitza	2.HE. DD. igarota		3 urte, Lehen hezkuntzan edo Lehen hezkuntzako aholkularitzan	B
Lehen hezkuntzako aholkularitza	2.HE. DD. igarota		3 urte, Lehen hezkuntzan edo Lehen hezkuntzako aholkularitzan	B
Lehen hezkuntzako aholkularitza	2.HE. DD. igarota		3 urte, Lehen hezkuntzan edo Lehen hezkuntzako aholkularitzan	B
Bigarren hezkuntzako aholkularitza soziolinguistika-arloa	2.HE. DD. igarota	Arloari lotutako goi-mailako titulazioa	3 urte, Bigarren hezkuntzan edo Bigarren hezkuntzako aholkularitzan	A
Bigarren hezkuntzako aholkularitza soziolinguistika-arloa	2.HE. DD. igarota	Arloari lotutako goi-mailako titulazioa	3 urte, Bigarren hezkuntzan edo Bigarren hezkuntzako aholkularitzan	A
Bigarren hezkuntzako aholkularitza zientzia- eta teknologia-arloa	2.HE. DD. igarota	Arloari lotutako goi-mailako titulazioa	3 urte, Bigarren hezkuntzan edo Bigarren hezkuntzako Aholkularitzan	A
Bigarren hezkuntzako aholkularitza zientzia- eta teknologia-arloa	2.HE. DD. igarota	Arloari lotutako goi-mailako titulazioa	3 urte, Bigarren hezkuntzan edo Bigarren hezkuntzako aholkularitzan	A
Hezkuntza-behar berezien aholkularitza.	2.HE. DD. igarota	Psikologia, pedagogia edo	3 urte, Hezkuntza	A/B

2012ko abuztuaren 3a, ostirala

Lanpostua	Hizkuntza- eskakizuna. Derrigortasun- data	Titulazioa	Esperientzia	Taldea
garapenaren nahasmendu orokorrak	DD. igarota	psikopedagogia	berezian	
Hezkuntza-behar berezien aholakularitza. ikasteko gaitasunen garapena	2.HE. DD. igarota	Psikologia, pedagogia edo psikopedagogia	3 urte, Hezkuntza berezian	A/B
Hezkuntza-behar berezien aholakularitza. gizarteratzea	2.HE. DD. igarota	Psikologia, pedagogia edo psikopedagogia	3 urte, Hezkuntza berezian	A/B
Hezkuntza-behar berezien aholakularitza. komunikazioaren irisgarritasuna eta garapena	2.HE. DD. igarota	Psikologia, pedagogia edo psikopedagogia	3 urte, Hezkuntza berezian	A/B
Hezkuntza-behar berezien aholakularitza. ikasteko gaitasunen garapena.	2.HE. DD. igarota	Psikologia, pedagogia edo psikopedagogia	3 urte, Hezkuntza berezian	A/B
Hezkuntza-behar berezien aholakularitza. gizarteratzea	2.HE. DD. igarota	Psikologia, pedagogia edo psikopedagogia	3 urte, Hezkuntza berezian	A/B
Hezkuntza-behar berezien aholakularitza. komunikazioaren irigarritasuna eta garapena	2.HE. DD. igarota	Psikologia, pedagogia edo psikopedagogia	3 urte, Hezkuntza berezian	A/B
Hizkuntza normalkuntzako programaren aholkularitza	2.HE. DD. igarota		3 urte, Hizkuntza- normalkuntzan	A/B
Informazio eta komunikazioaren teknologiaren programaren aholakularitza	2.HE. DD. igarota		3 urte, informazio eta komunikazioaren teknologietan (IKT)	A/B